

Abarrak

MIKEL GARCIA

Sasi guztien azpitik...

HODEI GUZTIEN GAINETIK. Akelarretik bueltan esamoldea nahasi zuenetik, Kalabazaren satelite izatera kondenatua dago eskuineko argazkiko gizagaixoa. Bai, abenduan 25 urte bete dituen *Kalabaza tripontzia* film gogoangarriko pertsonaia da; Kalabazan gertatzen diren istorio bitxiaren narratzailea, zehazki. Gaur egungo animaziogintza homogeen eta globalizatuan aurkitzea zaila den mundu imaginario aberatsa dario Juanba Berasategi pasaitarraren pelikulari: Tartalo, Galtzagorri, Kukubiltxo, Xaxpiki, lamiak, sorginak, Patxi errementaria... Mitologiari, kondairei eta ahozko tradizioari zor die bere magia animaziozko lehen euskal film luzeak. 3D-en aroan, bi dimentsioko harribitxia.

Dagoeneko 25 urte igaro dira, eta hala ere *Kalabaza tripontzia* nolabaiteko freskotasuna mantendu du. Ironia finak harilkatutako istorio bilduma osatu zuten langile prestuek –izugarritzko ahalegina izan zen garairako ordu eta erdiko animazio filma osatzea–, eta horri esker ikus ditzakegu pantailan Kukubiltxo txikiaren bihurriketariak, Patxik Galtzagorriarekin dituen solasaldi kuriozoak, artzain maltzuraren azpijokoak... Nabarmentzekoa da baita ere euskarari ematen zaion tratamendu landu eta txukuna –kontuan hartzekoa da Koldo Izagirre aritu zela gidolari–.

Noizko *Kalabaza tripontzia* 2? Berasategik dioenez, egunen batean egin behar lukeela pentsatzen du, teknika berriekin baina aldaketa handiegirik gabe, “pertsonaiak mantenduz, gaur egungo egoerara mitologia ekarriz, *katxondeo* gehixeagorekin, konplexuak alboratuta”. Gaur egungo haurrek ikusiko al lukete, ordea? Asiako marrazki bizidun merkeen eraginpean, Anime eta Manga estiloko lanak ugaritu dira gure telebista



Kalabaza tripontzia. Zuzendaria: Juan Bautista Berasategi. Gidoia: Koldo Izagirre
Animazioa. 90 minutu. Euskal Herria, 1985.

kateetan. Iragarkien, marrazkien eta oro har telebistaren erritmo bizkorrera, plano saturatuetara ohitu gara ikusleak. Eta *Kalabaza tripontzia* –zorionez– bestelako patxada dauka, irudiez eta elkarriketez gozatzeko parada eskaintzen duen abiadura.

Egungo haurrek ez dakit, baina ziur naiz belaunaldi batzuk atzeragokook gustura ikusiko genituzkeela bere garaian liluratu gintuzten pertsonaien abentura berriak, begietan eta buruan iltzatuta geratu zaizkigun fotogramak. Eta bestela, pelikula originalera jo dezakete haurtzaroaren nostalgikoek. ■

Ikusi **argia.com**en Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala zuzenean!

Abenduaren 18an, arratsaldeko 16:30etatik aurrera

- Galdera gaiztoak: publikoko pertsona ezagunen adierazpenak
- Bertso saioa oso-osorik
- Saioaren analisisa Agin Rezola eta gonbidatuen eskutik



argia, bertsoa.com eta info7 elkarlanean

Onintza Enbeita, Miren Amuriza, Beñat Ugartetxea, Etxahun Lekue, Arkaitz Estiballes, Jone Uria, Eneko Abasolo "Abarkas" eta Peio Ormazabal